

5

Jarreretatik portaerak ulertu nahian

Iñigo Igartzabal Bidegain

Euskara irakaslea

i.igartzabal@gmail.com

Sarrera-data: 2015-11-03 / Onartze-data: 2015-11-30

Laburpena. Euskararen ezagutza datuak gero eta hobeak dira, ez da hala gertatzen, ordea, erabilera datuei erreparatuz gero. Euskaraz egin nahi izatea askotan ez da aski izaten eta nola jokatu ez dakigula geratzen gara hainbat egoeratan. Badira urte batzuk Emun kooperatiba Kataluniako hainbat lagunekin elkarlanean gai hau lantzen hasi zena euskararen herrian tailer parte-hartzaileak antolatuz. Bada, tailer horietan psikologian portaerak ulertzeko dauden hainbat teorizazio lantzen dira, horien gaineko hausnarketa egitearekin bat. Hizkuntza-ohiturei buruzko monografiko honek euskal hiztunok ditugun hizkuntza-portaeren zergatiak ulertzen laguntzea du helburu; azalpen, adibide, esperientzia eta bizipenak tarteko. • **Hitz gakoak:** *Jarrerak, portaerak, hizkuntza-ohiturak, disonantzia kognitiboa, mendekotasuna.*

Abstract. The data on the knowledge of the Basque language are showing steady improvement, yet that is not the case with respect to the data on use. Wanting to speak in Basque is often not enough, and in many situations we end up not knowing how to act. It was some years ago that the EMUN cooperative began to work on this issue in collaboration with many friends from Catalonia by running participatory workshops in the land of the Basque language. So, in these workshops some theorizings are being developed in psychology to understand behaviours as well as to reflect on them. This monographic work on language habits sets out to assist in understanding the reasons behind the language behaviours that we Basque speakers have; explanations, examples and experiences are included. • **Key words:** *Attitudes, behaviours, language habits, cognitive dissonance, subordination.*

Nahiz asko maite,
nahiz oso geure
sentitzen dugun euskara,
inork agindu gabe erdaraz
sarritan geu hasten gara!
Ez ezazu egin hainbeste duda
zeurea euskaraz esan,
edukazio gehiegizkoak
euskara galdu ez dezan!
(Pirritx, Porrotx eta Marimotots)

***“Hizkuntza ez
normalizatu bat
erabiltzen
duenak jasaten
du. Hiztunak
bere hizkuntza
erabili ala ez
etengabe erabaki
behar duenean,
nekea sortzen da.
Neke horri
esaten diogu
estres
linguistikoa”***


1. SARRERA

I Honako lan hau hizkuntza-ohiturei buruzko monografikoa duzu. Hasiera batean, zenbaitentzat gaiak berria eman badezake ere, kezka, arazoa, harra edo dena delakoa aspalditik datorkigula esango nuke. Ez da euskaldunon kontua bakarrik, gainera, hizkuntza bat baino gehiagok elkarrekin bizi behar dutenean gertatzen baita hizkuntza hautua egin behar izate hori. Zein hizkuntzatan hitz egingo diot honako honi? Eta horrako horri, edo harako hari, berriz, nola? Honela, stres linguistikoa bezala ezagutua den kontzeptua pairatzen dugu¹. “Hizkuntza ez normalizatu bat erabiltzen duenak jasaten du. Hiztunak bere hizkuntza erabili ala ez etengabe erabaki behar duenean, nekea sortzen da. Neke horri esaten diogu stres linguistikoa” (badubada, 2013).


Hala, eremu geografiko jakin batean hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin bizi badira, ukipenean daudela esaten da. Kontu izan munduan 6000 hizkuntzatik gora daudela; beraz, toki batean baino gehiagotan daude hizkuntzak ukipenean. Geurea ez da salbuespena, eta ez gara horren bereziak, ezta gutxiagorik ere. Aipatzekoa da euskara, gaztelera eta frantsesaz gain, badirela beste hizkuntza² ugari ere geure lur hauetan hitz egiten direnak; hala ere, jakina da lehen hirurak direla hiztun gehien dituztenak eta ofizialak, nahiz eta ofizialtasunik ez izan Euskal Herri osoan. Iparraldean, euskara frantsesarekin dago ukipenean; eta hegoaldean, berriz, gaztelarekin. Jakin badakigu, gainera, euskaldun elebakarrik apenas geratzen dena, eta erdaldun hiztun horietako askok ez dakiela euskaraz (edota ez duela hitz egiten, behintzat).

Hizkuntza gutxituen hiztunak askotan urpekariak gara: ur-azalaren azpian geratzen gara eta soilik eremu ziurretan ateratzen gara azalera.”

1. Grafikoa. Hizkuntza-gaitasuna. Euskal Herria, 2011 (%)



2. Grafikoa. Euskararen erabileraren tipologia. Euskal Herria, 2011 (%)



Euskara erabiltzea, beraz, Euskal Herriaren osotasunean, nahi baino nekezagoa dela esan dezakegu. Honela, euskaraz dakiela dakigun lagunarekin hala jarduten gara lasai asko batzuetan, ingurune euskaldunetan ere askorik pentsatu gabe egiten dugu geurean, eremu ez hain euskaldun batean baldin bagaude, aldiz, bi aldiz pentsatuko dugu, agian, hizketan hasi aurretik (geure barne gogoeta hasiaz): “Jakingo al din/k euskaraz? Ba, nik hala egingo zio(n)at, eta ea ze aurpegi edo ze erreakzio izaten duen!”. Beste elebidun askok, agian, ez diote garrantzirik emango edo ez dute zalantzarik egingo, eta erdarara joko dute berehala arrazoi desberdinak medio: erosotasuna, ohitura... Eremu euskaldunetan ere pasatzen da, noski, parean duzunaren janzkera, itxura edo dena delakoagatik erdaraz

egitea. Gemma Sanginésen, ARGIA astekariak (ARGIA, 2013/12/15) eginiko elkarrizketa batean, honela dio: “auto-estima falta handia dago hizkuntza gutxituen hiztunen artean, eta hori buruan sartu diguten zerbait da. Hizkuntza gutxituen hiztunak askotan urpekariak gara: ur-azalaren azpian geratzen gara eta soilik eremu ziurretan ateratzen gara azalera.”

Datuek ere hala diote, 2011. urtean eginiko V. Inkesta Soziolinguistikoak argitara emaniko datuak aurrekoekin konparatuz gero, ikus dezakegu ezagutzak gora egin badu ere, erabilerak ez duela joera bera izan. Hor euskara dakigunok daukagu giltza, besteek egiten dutenaz arduratu bai, baina geuk geurean, behintzat. Horretan asko daukagu ikasteko katalanengandik, haiek ere guk bezala hizkuntza mendekotasuna egunero praktikatzen baitute. *Zergatik egiten zaigu, bada, horren zaila euskarari eustea euskaldun hartzaileekin, hau da, hitz egiteko gai ez direnekin edo gai sentitzen ez direnekin, edo are euskaraz mintzatzeko gogorik ez dutenekin? Zergatik kostatzen zaigu hainbeste mintzaide horiekin euskaraz egitea ulertu egiten digutela dakigun arren?*³

Euskararekiko kontzientzia baldin badugu ere, askotan hanka-motz sentitzen gara hainbat egoeraren aurrean. Hizkuntza-ohituren gainean lanketa egiten duten pare bat esperientzia baditugu Euskal Herrian: *Ez Tau Musik (esatetik egitera)* eta TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal). Bi esperientzia horiek zertan oinarritzen diren jakiteko hel diezaiogun, bada, lehendabizi teoriari.

2. JARRERAK

I

2.1 Definizioa

Jarrerak modu askotan definituak izan badira ere, Olatz Olasok aipatzen du kontzeptu psikologiko hau definitzen duen nukleo zentrala, *objektu jakin batekiko oinarritzko ezaugarri ebaluatzailea da* (izan positiboa - negatiboa, atsegina – desatsegina, aldekoa-kontrakoa) (Fiske eta Taylor, 1991). Gizarte psikologian jarreraren ikasketa oinarritzko gaietako bat izaten da, eta *jarrerak erantzun ikasia izaten dutela ere azpimarratzekoa da* (Zimbardo eta Leippe, 1991).

2.2 Funtzioak

Jarreraren funtzioei erreparatzen badiegu, autore batzuk lau zeregin izan ditzaketela identifikatu dute, eta beste batzuek, berriz, bost, sei edo zazpi. Guk lautan banatu ditugu.

**Zenbait
koadrilatan
euskaraz jakiteak
talde horretan
integratzeko
bidea erraztuko
dizu. Edo
alderantziz,
euskaraz jakin
eta erdaraz
egitea,
integratzeko
beste modu bat
izan daiteke.
Gazte eta nerabe
taldeetan
gertatzen den
fenomenoa,
euskaraz hitz
egitea, ez da
“moderno”, ez
da “guay”, beraz,
taldekide bezala
onartua izateko
euskara,
eskolako
hizkuntza, albo
batera utzi behar
da.**

Ezagutza

Testuinguruaren ebaluazioa egiten laguntzen digute, guretzat zer den ona eta zer txarra bereizten. Jarrera ona izaten dugu ona den horrekiko, eta negatiboa, aldiz, txarra den horrekiko. “Fazio-k (Morales, 1999) dioen moduan, objektu batekiko jarrera edukitzea ez edukitzea baino funtzionalagoa da. Zeintzuk dira jarreraren efektu egokitzaileak? Bada, ekintza zuzentzeko arrasto argia izatea, hain juxtu ere, aurrez jarrera objektuarekiko zer egin behar dugun jakin eta objektu horrekin aurkitzen garen bakoitzean, denbora larregi pasatu gabe deliberazio eta hausnarketetan, erantzun azkarra ematea, ia-ia automatikoa (Irastortza, 2010:51)”. Esaterako, gaia geurera ekarrita, euskaraz dakitela dakigun kasuetan, gure jarrera euskaraz egitea izan daiteke, eta euskaraz dakien edo ez, ez dakigunetan, erdaraz egitea. Bai hautaketa bat, bai bestea, denbora gehiegi pentsatu gabe egin dezakegu, modu azkarrean eta automatikoki. Horretan laguntzen digu jarrerak.

Egokitze soziala

Zenbait gizataldetan integratu eta onarpen soziala jasotzea baimentzen digu. Zenbait koadrilatan euskaraz jakiteak talde horretan integratzeko bidea erraztuko dizu. Bestela ere integratu ahal izango zara talde horretan, baina euskara jakiteak sozialki integratzeko beste modu bat eskainiko dizu. Edo alderantziz, euskaraz jakin eta erdaraz egitea, integratzeko beste modu bat izan daiteke. Gazte eta nerabe taldeetan gertatzen den fenomenoa, euskaraz hitz egitea, ez da “moderno”, ez da “guay”, beraz, taldekide bezala onartua izateko euskara, eskolako hizkuntza, albo batera utzi behar da.

Ego - Babeslea

Barne gatazkak ekiditen laguntzen digu. Horrela, emozio negatiboiei aurre egitea baimentzen digu, zenbait ezaugarri kanpora atereaz edo ezezkua emanez. Esaterako, pentsa dezakegu kanpotik etorritako jendeak erdaraz hitz egitera bultzatzen gaituela.

Balore adierazpena

Baloreak jarrerak baino sakonagoko egiturak direnez, jarrerak balore horietan oinarritzen dira. Adibidez, ni euskaltzalea banaiz, eta hori niretzat balore garrantzitsua baldin bada, balio horretan oinarrituko da nire euskararen jarrera, baina niretzat ez badu balio handirik euskarak,

nekez izango dut euskararen aldeko jarrera. Barne gatazkak ekiditea baita jarreraren funtzioa.

2.3 Osagaiak

Jarrerak aztertzerakoan, klasikoki edozein jarrerak hiru osagai dituela esan izan da; *eredu tridimentsionala* ere deitua.

Kognitiboa

Objektu horrekiko gizartean existitzen diren sinesmen, iritzi eta ideiak dira. Guk objektu horretaz daukagun informazioa edo pentsatzen duguna, alegia. Zerbait itsusia, ederra, baliagarria, baztertzailea edo dena delakoa den ustea. Euskara oso zaila da, hizkera asko aldatzen da herri batetik bestera, eta horrek asko zailtzen du... horrelako ideiak edo erabat aurkakoak edukitzeak eragin zuzena du jarreraren. Ziurrenik hizkuntza bati buruz nik informazio edo ezagutza handia baldin badut, zailagoa izango da kontrako jarrera izatea. Beste era batera esanda, nik ez dut aldeko edo kontrako jarrera berezirik *bableari* buruz, baina, aztertu eta ezagutuko banitu *bablearen* nondik norakoak, nire jarrera aldatu egingo litzateke.

Afektiboa

Objektu horrek sorturiko sentimenduak eta emozioak dira. Zerbaitenganako leialtasuna edo atxikimendua, identitate-sentimendua, lotura... Euskara geure hizkuntza da eta geuk hitz egin behar dugu, bestela nork hitz egingo du, bada?

Konatibo – Konduktuala

Objektu horrekiko jokabide-joera eta intentzioa dira. Egoera zehatzetan erantzuteko joera definitzen duela esan daiteke. Jarrera batek portaera bat izaten du, bere baitan dakar, nahiz eta beti ez datozen guztiz bat. Adibidez, euskaraz bizi nahi baldin badugu, hori praktikan jartzea izango litzateke.

Hona beste zenbait adibide argigarri...

- “Nik zakurrei beldurra badiet, zakurren gainean ideia txarrak izango ditut, ideia horiek emozio negatiboz bustirik egongo dira oroimenean, eta oroitzean edo ikustean, emozio negatiboak etorriko zaizkit burura. Zakurra ikustean, iheserako joera izango dut, eta

**Ziurrenik
hizkuntza bati
buruz nik
informazio edo
ezagutza handia
baldin badut,
zailagoa izango
da kontrako
jarrera izatea.**

eurenganako jarrera txarra izango dut. Jarreraren hiru osagaiak bat datoz honakoan: ideia txarrak, emozio negatiboak eta ekiditeko joera. Horrek nire portaera azal dezake: zakurra ikusten dudana ba-koitzean ihes egitea; zakurrak dauden lekuetatik ihes egiteko joera edukitzea.”

- “Oso ideologia ezberdina duen pertsona bati buruz iritzi txarra badut (kognitiboa: aurreiritziak), berarenganako emozio negatiboak sortzen bazaizkit (afektiboa: beldurra, haserrea, nazka), eta berarekin ez egoteko eta ez hitz egiteko joera badut (konatiboa), pertsona horrenganako jarrera txarra dudala esan nezake. Horrela portaera atzeman genezake” (Zupiria, 2008: 2).

Bi adibide horietan hiru osagaiak norabide berean doaz, hau da, zentzu bera daukate. Gerta daiteke, ordea, jarreraren hiru osagaiak norabide berean ez joatea; eta zer gertatzen da halako kasuetan? Bada, ez baldin badoaz hiru osagaiak norabide berean, portaera osagai bat(zu)ekin bakarrik lotua egongo da, eta ez beste bat(zu)ekin.

“Demagun odola ematea ondo iruditzen zaidala (jarreraren osagai kognitiboa ideia positiboz osaturik dago: ondo iruditzen zait odola ematea). Hala ere, oso desatsegina da niretzat odola ateratzea (jarreraren alde afektiboa, berriz, negatiboa da, beldurra sortzen dit). Kasu horretan ez dago osotasunik jarreraren osagaien artean, eta zailagoa egingo zait portaera auresate edo asmatzea” (Zupiria; 2008: 3).

3. JARRERA ETA PORTAERAREN ARTEKO ERLAZIOA

I

Esan dezakegu, beraz, gauza, egoera, pertsona eta abarrenganako jarrerak izaten ditugula; eta behin jarrera horiek ezagutuz gero, neurri batean portaera bera ere asma dezakegula (edo ulertu, behinik behin). Ulergaitzak gertatzen zaizkigun portaera askoren atzean ere jarrera bat egoten baita, portaera hori zein den ulertzen laguntzen diguna (Zupiria; 2008: 2).

Euskaraz bizi nahi dugunok eta euskararen aldeko jarrera dugunok, ordea, zein portaera edukitzen dugu zenbait komunikazio egoeratan? Geure jarrera eta portaera bat etortzen al dira? Zupiriak bere lanean aipatu bezala, esan daiteke jarreraren osagaiak irmoak direnean, errazagoa dela portaera aldatzea, baina zailagoa jarrera aldatzea. Jarreraren osagaiak irmoak ez direnean, aldiz, zailagoa da portaera auresate, baina errazagoa jarrera aldatzea. Hau ez da zientzia zehatza, ordea, ezta hurrik eman ere, eta nahiz eta jarreraren osagaiak norabide bera izan, ez dugu beti portaera auresaterik.

Portaera ulertzeko hainbat teorizazio daude, eta jarraian azalduko ditugun kontzeptu edo terminoek ere horretarako balio dute. Gauzak honela, kontzeptu hauek hizkuntzaren alorrera ekarrita, euskal hiztunok ditugun hizkuntza-portaeren zergatiak ezagutzen lagun diezagukete.

3.1 Disonantzia kognitiboa

Leon Festingerren *A Theory of Cognitive Dissonance* (1957) lana oso garrantzitsua izan zen psikologia sozialaren alorrean. Bertan Kelmanen teoria konduktistari egindako kritikak oinarri hartuta, disonantzia kognitiboaren teoria garatu zuen. Honela, Festingerrek zioen zenbat eta gehiago indartu jarreraren aurkako portaera, orduan eta handiagoa izango zela jarrera-aldaketa (Irastortza; 2010: 97).

Teoria honen oinarritzko printzipioa honakoa litzateke: gizaki guztiok dugu pentsatzen eta egiten dugunaren arteko kongruentzia izateko nolabaiteko joera; jarreraren eta portaeraren artekoa, alegia. Pentsatzen eta egiten denaren artean koherentziarik egon ezean, disonantzia-egoera gertatzen dela zioen Festingerrek. Disonantzia-egoera horrek tentsioa sortzen du gugan, eta subjektua oreka berrezartzera bultzatzen du. Normalean, oreka hori geureganatzeko bidea aurretiko jarrerak aldatuta gertatzen da (Festinger, 1957), nahiz eta beste aukera batzuk ere zilegi izan horretarako (Olaso; 2014: 58).

Horrela, bada, nola murrizt genezake disonantzia hori? Horretarako, gizakiok hiru estrategia erabiltzen ditugu:

- Elementuetako bat aldatzen dugu, sinesmenen arteko erlazioa tinkoagoa izan dadin. Esaterako, ni euskalduna naiz, eta euskararekiko jarrera positiboa dut, baina erdaraz bizi naiz. Nire inguruan euskaldun aktiboak topatzen baditut, nire sinesmenean eragina edukitzen du, eta, agian, nire portaera ere aldatu egingo da, eta nik ere euskaraz egingo dut. Horrela, bi elementuetako bat aldatu egin da.
- Kognizio berriak sortzen ditugu, elementuetako baten garrantzia areagotuz eta bestearen pisu disonante erlatiboa gutxituz. Zenbat eta gehiago jakin euskarari buruz, gure sentimendua, iritzia, kognizioa ere areagotu egingo da, eta horrek guztiak portaeran eragina izango du (Irastortza; 2010:218)
- Elementuen garrantzia aldatzen dugu, euren artean hain kontrakoak izan ez daitezken. Askotan euskara erabiltzeak zama suposatzen du, zenbaitetan frustrazioa ere bai. Hala, zenbaitek ez dio garrantzirik

Gizaki guztiok dugu pentsatzen eta egiten dugunaren arteko kongruentzia izateko nolabaiteko joera; jarreraren eta portaeraren artekoa, alegia. Pentsatzen eta egiten denaren artean koherentziarik egon ezean, disonantzia-egoera gertatzen dela zioen Festingerrek.

**Jarreraren
aurkako
portaerak
gertatuko badira,
aurrez jarrera
aldaketa bat izan
behar da burutu
nahi den
portaera horren
norabidean.**

ematen euskararen biziraupenari, eta nahiago izaten du eroso bizi euskararen zamarik gabe.



Begien bistan dauden inkoherentziak identifikatu eta epaitzea erraza zaigu, geure barnean daudenak ordea...

Bai Irastortzak eta bai Olasok diote teoria honetatik atera daitekeen ondorioa honakoa dela: “jarreraren aurkako portaerak gertatuko badira, aurrez jarrera aldaketa bat izan behar da burutu nahi den portaera horren norabidean.”

3.2 Mendekotasuna

Beste zerbaiten mende egotearen nolakotasuna litzateke, bizi izateko “zerbait” horren beharra izatea. Gaia geurera ekarrita eta hizkuntzari aplikatuz gero, guk gaztelerarekin nahiz frantsesarekin duguna litzateke. Nahiz eta euskaldunak izan eta euskaraz bizi nahi izan, alferrikako egoeretan ere erdarara jotzen baitugu, askotan oharkabean izanda ere.

Hizkuntza mendekotasunaren jarrera, beste jarrera asko bezala, ikasi egiten da, eta jarrera horrek eragiten dituen ondorioen arabera mantentzen da. Komunitate baten ezaugarri bereizgarri batek kontsiderazio baxua edo gutxiespena jasotzen badu, pertsonen propioak diren ezaugarriak baztertzeko joera izaten dute, eta horrek, noski, ondoeza eragiten du (Sanginés eta Suay; XX:102).



Hona Joan Mari Torrealdai *El Libro Negro del EUSKERA* liburuan argitara emandako bizipen batzuk:

1787 – Que no permita a los niños hablen dentro ni fuera de las escuela otro idioma que el castellano; y entreguen el anillo para que vaya circulando entre ellos en las faltas en que incurrieren; y al último que llevare el tal anillo a la escuela le aplique la pena de azotes o palmada con suavidad... (Garai batean hemengo eskoletan gertatua)

1819 – (Le Préfet demande l'ouverture de l'école de Saint-Jean-Pied-de-Port pour) aider à la pénétration de la langue française en Pays Basque.

1907 – Y es que el vascuence desaparece rápidamente y, además, que a nosotros los vascos nos conviene que desaparezca. Para la moderna lucha por la cultura necesitamos una lengua de cultura, y el eusquera no lo es. Es un instrumento complicado y embarazoso; su caudal léxico en uso corriente es, como no puede ser menos de ser, muy limitado. (Miguel Unamuno)

(J.M. Torrealdai, 1998)

Gure arbasoek horrela ikasi dute, eta guri ere, hain zuzenean ez bada ere, mezu hori iritsi zaigu. Mendeetan errepikatu izan dutena: euskarak etxean hitz egiteko baino ez du balio, hitz egizue erdaraz bizitzan nor izan nahi baldin baduzue. Modu horretan, euskarari uko egin eta erdaraz hitz egitea sozialki gora egiteko baldintza bihurtu izan dute, guk geuk ere sinestearino. Aurreiritziz jositako hiztunak gara, gizalegea, errespetua edo begirunea⁴ erakutsi behar izaten diogu parean daukagunari, eta berak erdaraz hitz egitea nahikoa izaten da geuk ere hala egiteko. Euskaraz ikasi dugu bai, baina ez digute erakutsi hizkuntza hori erabiltzen gure solaskidea beste hizkuntzaren batean mintzo denean (Suay; 2008:116).

***Euskara
erabiltzeak kostu
handia suposa
dezake askotan,
eta horrek nekea
sortzen du;
gatazkak ere sor
daitezke hainbat
egoeratan, eta
horren eraginez
estresa sor
daiteke;
konnotazio
politikoa ere izan
dezake,
aurkariak sor
ditzake... Azken
batean,
deserosotasun
egoeretan aurki
gaitezke euskara
erabiltze
hutsagatik, eta
hori geure
buruarentzat
zigorra da.***

Egunero ikasten ditugu hainbat portaera, bai behaketa bidez eta baita imitazio bidez ere, eta ez dira izaten ez geure hizkuntzari eustekoak. Hizkuntza menderatzaileen (gure kasuan frantsesa eta gazteleraren) aurrean otzandu egiten gara, eta lehenaz gainera, euskara are hizkuntza gutxituago bihurtzen dugu; hizkuntza-portaerei dagokienez, errazegi egiten baitugu men. Sanginés eta Suayk diote mendekotasun linguistikoa ikasitako portaera dela, ia kuestionatzen ez den testuinguru batean gertatzen dena. Gainera, poliki asko azaltzen dute horren guztiaren arrazoi psikologikoa: mendeko portaera hori berrespen positiboengatik (onarpen soziala), eta berrespen negatiboengatik (gatazka saihestea) mantentzen da. Posible da hori praktikatzen duten pertsonak mendeko portaera bat izateaz kontziente ez izatea eta kortesia erakustea, edo edukazio onez egiten dutela uste izatea. Mendeko portaeratzat har daiteke, ordea, modu sistematikoan amore eman eta hizkuntza propioa baztertzea beste hizkuntzaren presentzia hutsaren aurrean (Sanginés eta Suay; 2008:109).

Euskara erabiltzeak kostu handia suposa dezake askotan, eta horrek nekea sortzen du; gatazkak ere sor daitezke hainbat egoeratan, eta horren eraginez estresa sor daiteke; konnotazio politikoa ere izan dezake, aurkariak sor ditzake... Azken batean, deserosotasun egoeretan aurki gaitezke euskara erabiltze hutsagatik, eta hori geure buruarentzat zigorra da. Gaztelerara joz gero, berriz, kontzientzia txarra izango dugu geurea den hizkuntza alde batera utzi dugulako, eta ondorio berdina izango du: deserosotasuna. Gauzak honela, presio soziala tarteko, hainbat komunikazio egoeratan nola jokatu ez dakigula geratzen gara, eta geureari eusteko nahikoa baliabide ez daukagunez, eta hizkuntza mendekotasun horrek pisu handiagoa duenez, euskarari uko egiten diogu erdararen mesedetan. Frankoren garaian, esaterako, zigorra “kanpokoa” zen, eta horrek ondorio negatibo nahiz positiboak zituen: negatiboen artean, frankisten aurrean gazteleraz hitz egitera behartuak ziren; baina kontzientzia linguistikoa areagotu egiten zen, eta hori positiboa zen. Auto-zigorra, ordea, dagoen zigor sistematiko eraginkorrenena da.

4. HIZKUNTZA OHITURAK LANTZEN

I

Arestian aipatu bezala, hizkuntza-ohituretan trebatzeko pare bat esperientzia, behintzat, baditugu euskararen herrian. Hemen duzue bi ekimen horien nondik norakoaren berri:

- EMUN kooperatibak sortu eta antolaturiko ikastaro hauetan motibazioa eta jarrera-aldaketak lantzea da helburua. Ez dira oso eza-gunak egin oraindik, baina existitu existitzen dira. Bertan lantzen dena oso egokia dela diote euskal herritarrok euskararen gainean dugun pertzepzio, jarrera eta portaeran eragiteko; norbere hizkuntza-ohiturei buruz hausnarketa eginez.

Ikastaro horretan parte hartzeko denek euskaraz komunikatzeko gai izan behar dute, eta talde naturalak izatea hobesten da.

Helburu nagusi gisa honakoak planteatzen dituzte:

- Euskararen egoeran eragiten duten hainbat faktoreri buruz hitz egiten hasia.
- Erabileran eragiten duten faktoreei buruzko formazioa hartzeaz gain, nork bere iritzia eta usteak azaltzea, pentsamendua garatzea.
- Euskarari buruzko pentsamendua landuz, esatetik egitera jauzi egiteko prestatzea.
- Taldean adostutako helburu nagusiari erantzuteko ideiak zerrendatu eta egokienak aukeratzea, aurrera begira eman beharreko pausoak irudikatzea.
- *Ez Tau Musik* tailerrek diote gizakiok ez ditugula jarrera eta portaerak besterik gabe aldatzen, aldatzea kosta egiten dela. Hainbat adituk dioten bezala, poznizioan edo pentsamenduan eraginez gero, jarrera aldatu daiteke, eta euskararen auzia barneratu.

Metodologia aldetik, berriz, erabat parte-hartzailea da, dinamikoa; bertan oinarri teorikoak, hausnarketa eta ariketak uztartzen direlarik. Gainera, saioen egitura orokora errespetatzen bada ere, edukiak, ariketak eta materialak hartzaileei egokitzen zaizkie. Saio horien helburua edozein mailatan euskararen erabilerara jauzi egiteko kontzientzia hartu eta prestatzea baita (“ETM:esatetik egitera”; Arrasate, 2013ko iraila).

- Valentzia Gemma Sanginés eta Ferran Suayk abiatutako esperientziak soka luzea ekarri du. Herrialde Katalanetan izandako esperientzia hona ekarri du EMUN kooperatibak, eurekin izandako elkarlanaren ondorioz. Distantzia linguistikoak kontuan hartuagatik ere, hiztunon bizipenak oso antzekoak direla diote bai han eta bai hemen. Hala, 2008. urtetik EMUNek berak TELP tailerrak ematen ditu Euskal Herriko edozein txokotan.

EMUN
kooperatibak
sortu eta
antolaturiko
ikastaro hauetan
motibazioa eta
jarrera-aldaketak
lantzea da
helburua. Bertan
lantzen dena oso
egokia dela diote
euskal
herritarrok
euskararen
gainean dugun
pertzepzio,
jarrera eta
portaeran
eragiteko;
norbere
hizkuntza-
ohiturei buruz
hausnarketa
eginez.

***Euskal hiztunoi,
eta euskaraz bizi
nahi dugunoi,
kosta egiten
zaigu askotan
euskaraz natural
aritzea, eta
halakoetan
gazteleraz
jarduten gara.
Esaterako,
ezezagun bati
lehen hitza
egiterakoan
hainbat izan
daitezke geure
hizkuntza-hautua
egiteko
arrazoiak: hala
nola, unea, tokia,
testuingurua edo
norbere aldartea
zein den, hautua
bat ala bestea
izango da.***

Tailer horiek norberaren inguruan euskararen erabilera areagotzeko tresna baliagarriak direla aipatzen dute (bakoitzaren esperientzietan arreta berezia jarritz), horretarako parte-hartzailea hizkuntza portaeren eta ohituren kontzientzia hartzera laguntze du, euskaraz gehiago eta erosoago egiteko baliabideak eskainiz.

Hizkuntza-kontzientzia duten hiztunentzat dira tailer horiek, eta bertan atal teorikoak eta praktikoak tartekatzen dira. Hizkuntza-portaerak ulertzen laguntzen dute, hau da, zergatik jotzen dugu erdarara, baita beharrik ez dugunetan ere? Hizkuntza-portaerak alderdi psikologikoaren ikuspegitik azaltzen dituzte, portaerak ikasteko mekanismoen azalpenaren bidez.

Ikuspegi-aldaketa bat proposatzen dutela diote, tailerrak ez baitigu ez dakigunik erakutsiko; baina bai dugun ezagutza hori beste modu batera antolatzen erakutsiko. Hizkuntza hartu-emanak ulertzeko eta horietan eragiteko begirada berri bat geureganatzen lagunduko digu, hobetu ditzakegun aukerak identifikatu eta hobekuntza horiek kudeatzeko baliabideak eskainiz. Laburtuz, honela diote, egin nahi dugun hori nola egin erakutsiko digute, pauso txikiak emanez, geure hizkuntza eremua zabal dezagun (TELP; Emun).

5. BIZIPENAK ETA ONDORIOAK

I

Hasteko eta behin esan beharrean nago oraindik ez dudala izan hemen aipatutako tailer-ikastaro horietan parte hartzeko aukerarik, horien berri izan nuenetik, orain urtebete inguru-edo, ez baitut esperientzia horietan murgiltzeko aukerarik izan. Alde batean eta bestean irakurri dudanak gidatu nau nolabait neure hizkuntza-portaerak identifikatu eta onartzen. Horrela, neure buruari erronkak jartzen hasi naiz suerta litezkeen hainbat komunikazio-egoeratarako.

Euskal hiztunoi, eta euskaraz bizi nahi dugunoi, kosta egiten zaigu askotan euskaraz natural aritzea, eta halakoetan gazteleraz jarduten gara. Esaterako, ezezagun bati lehen hitza egiterakoan hainbat izan daitezke geure hizkuntza-hautua egiteko arrazoiak: hala nola, unea, tokia, testuingurua edo norbere aldartea zein den, hautua bat ala bestea izango da. Ezagunekin ere sarritan gazteleraz aritzen gara, noski, eta gainera jakinda euskara ulertzeko gai direla; hori ere ohitura kontua. Behin ohitura batzuk geure eginda eta modu batera jotatzen ikasita, ordea, zaila izaten da beste modu batera jotatzen hastea. Egunerokotasunean behin eta berriro errepikatzen diren egoeretan kontziente izan

behar dugu zein den geure portaera. Guk geurean egin beharko genuke lehen hitza, eta gero horri eusten saiatu; baina esatea edo pentsatzea bezain sinplea balitz...

Badakigu euskara ez dela gazteleraren eta frantsesaren pareko, ezta gutxiagorik ere; ez hiztunez eta ezta eskubidez ere. Badakigu, ondo jakin ere, mendeetan zehar dominatzaile-menpeko egoerak gertatu izan direla lur hauetan, eta oraindik ere hainbat tokitan hala izaten jarraitzen duela. Bada, horrek guztiak bere arrastoa utzi du gudan, eta geure hizkuntza bigarren mailakoa balitz bezala, eta idatzi gabeko lege bat balego bezala, erdarek lehentasuna ematen jarraitzen dugu. Bai, dugu, baita guk geuk ere. Gazteleraz hitz egiten digunari hala egiten ikasi dugu, bestela egitea errespetu faltatzat har baitezakete; gainera, guri ze axola zaigu, bada, gazteleraz egitea? Horrela ikusi eta ikasi dugu: guk bi hizkuntzak dakizkigu, eta ez zaigu ezer kostatzen hizkuntzaz aldatzea. Baina, betiere, geuk utzi behar alde batera geurea, geuk erakutsi behar begirunea, geuk aldatu behar txipa, geu jaitsi behar espaloitik eta geu makurtu behar beti besteen aurrean.

Euskaraz jardun nahi dugula garbi eduki arren, eta horretarako prestutasuna izanda ere, askotan ez dakigu nola jokatu zenbait egoeratan, eta nahikoa buruhauste sor ditzake horrek. Pentsamendu horiekin nenbilela gertatutako istorio bat badut ondo gogoan: iritsi zen, bada, sorbaldako arazoak nituela-eta, ez dakit zenbat hilabete zain egon ondoren Zumarragako ospitalera joateko eguna. Bada, sartu kontsultara eta mediku erdalduna tokatu. Hura madarikazioa! Hortzak estutu eta isilik geratu nintzen. Hainbeste denbora zain egon ondoren, ez liskarrik izatearren, ondo geratzearren... Hala ere, eskubidea eskubide da, eta mediku euskalduna eskatu izan banu, hala jarri beharko zidaten. Ez nintzen kexatu, gero damutu bai, ordea, ez eskatu izanagatik.

Orduan, zer nahi jakinda ere, nola jokatu behar nuen asmatzea ez zitzaidan erraza egin, eta momentuko erreakzioa automatikoki gaztelerara pasatzea izan zen. Hura amorrazioa eman zidana egoera nahi nuenera bideratzen ez asmatzeak. Aldaketa ze norabidetan egin nahi nuen jakin arren, ez nintzen gai izan nire nahia (eta kasu hartan eskubidea zena) eskatzeko. Esan behar da egoera guztietan ez dugula berdin jokatzeko, gure aldaratearen arabera ere izaten baita gure portaera. Horrela, hainbatetan saihestu egiten dugu ustez etor litekeen “enfrentamendu” hori, eta geure buruarekin daukagun borroka horretan murgiltzen gara alfer-alferrik energia piloa xahutuz.

**Badakigu
euskara ez dela
gasteleraren eta
frantsesaren
pareko, ezta
gutxiagorik ere;
ez hiztunez eta
ezta eskubidez
ere. Bada, horrek
guztiak bere
arrastoa utzi du
gudan, eta geure
hizkuntza
bigarren
mailakoa balitz
bezala, eta idatzi
gabeko lege bat
balego bezala,
erdarek
lehentasuna
ematen
jarraitzen dugu.**

**Besteek noiz egin
behar dute
gugatik zerbait?
Noiz iritsiko da
guganako
begirunea? Bada,
alferrik dugu
zain egotea, gai
honetaz
naturaltasunez
hartzen ez
badugu, zaila
izango da.
Askotan aurrean
dugunari, betiere
modu onez,
ulertzen duen
galdetzea aski
izaten da.**

Bilbora joan nintzen batean, kasu, aparkatu eta Txurdinaga Institutua non zegoen jakin nahian, parean tokatu zitzaidan tabernara joan nintzen. Sartu nintzen, bada, tabernara eta hala esan nion tabernariari:

- Badakizu non dagoen Txurdinaga-Artabe Institutua?
- Perdona, pero yo euskera...
- Txurdinaga-Artabe Institutua. Errepikatu nion.

Berak ulertu, ulertu zuen nik esan niona, eta baita taberna txiki horretan zeuden gainerako hiruzpalau lagunek ere. Konturatu gabe, ordea, gazteleraz inon diren esplikazioak ematen hasi nintzaian, bertan erdi-mailako eta goi-mailako moduluak ematen dituztela eta nik dakit zer gehiago esaten. Ez nuen beharrik, baina hala atera zitzaidan, nahiz eta nik nahi nuen hori ulertu zidaten, inkontzienteki hasi nintzen gazteleraz, esaten nuena inportako balitzaie bezala. Hala, bada, “eskerrik asko” esan eta martxa egin nuen handik zapore gazi-gozoa nuela, beste behin ere errespetua erakutsi nahian-edo.

Besteek noiz egin behar dute gugatik zerbait? Noiz iritsiko da guganako begirunea? Bada, alferrik dugu zain egotea, gai honetaz naturaltasunez hartzen ez badugu, zaila izango da. Askotan aurrean dugunari, betiere modu onez, ulertzen duen galdetzea aski izaten da. Buruari eragiten eta norbanakotik portaerak aldatzen hasi behar dugu, euskaraz ulertzen duen guk uste baino jende gehiago baitago euskararen lurretan. Zenbait giro, inguru edo pertsona gaztelerarekin lotzen baditugu ere, uste baino sorpresa gehiago izaten ditugu, eta halakoetan sentitzen dugun satisfazioa benetan izaten da itzela. Euskara ez baita inguru hurbilarekin edo ziur hitz egiten dakitela dakigun horiekin bakarrik hitz egiteko hizkuntza, ulertzen duten horiekin ere euskaraz mintzatu ahal gara. Askotan natural-natural, pentsatu gabe egiten ditugun gauzak izaten dira ondoriorik onenak edo gehien asebetetzen gaituztenak, bada, euskararekin ere berdin gertatzen dela esan daiteke.

Gogoan dut iazko Tolosako inauterietan gertatua. Ez dakit ze ordu izango zen, baina imajinatu Tolosako inauterietako igandea zela. Mozorrotuta zebilen jendea, eta halako batean zigarro bat pizteko su eske hasi, eta arabiar bati eskatu nion supiztekoa euskara hutsean. Eman zidan “txiskeroa”, eta zer zen haren poza! Tolosarra zen, urte batzuk bazeramatzan bertan bizi izaten, eta ikaragarri eskertu zidan euskaraz egin izana. Niri, berriz, modu ezin naturalagoan atera zitzaidan euskaraz egite hori, eta nire auto-estimak eskertu zuen, zinez.

Behin ondo ateratako egoerak kontaktzen hasita badut beste bat, Bilbora joandako aldi hartakoa hain zuzen. Behin egitekoak non egin behar nituen jakinda, zerbait hartzeko toki baten bila hurbildu nintzen autoa utzi nuen inguru hartara. Ez nintzen berriro lehengo tabernara itzuli, errepidearen beste aldean zegoen taberna handixeago batera joan nintzen. Barran pintxo batzuk ikusi nituen, eta ezin, bada, tentazioari eutsi. Pintxo bat seinalatuz hala galdetu nion:

— Barkatu, zer da hau?

— En euskera... que, que es lo que lleva?

Buruarekin baiezkoa nik.

— Patata y alí olí!

Orduan nik.

— Ba, jarri horrelako bat (seinalatuz) eta Koka-kola bat, mesedez!

Halaxe atera zizkidan nik nahi nituen pintxoak eta Koka-kola; eta gainera “eskerrik asko” esan zidan.

Ez da erraza, hala ere, beti umore oneko, era asertibo batean eta zeure onetik atera gabe jokatzeko. Burua, nahi edo ez nahi, beti daukagu bueltara, hau ez bada bestea gogoan, nik ez dakit nora joan beharra, harekin egon beharra, edo besterik gabe, epaituak izango garen beldur horrekin. Beti ez baikaude aldarte oneko, eta halakoetan geure onetik ateratzea izaten da normalena, eta erantzun txarren bat ekartzen du atzetik.

Uste dut euskal hiztunok geu garena izanez euskararen erabilera-esparruak irabaztea lor dezakegula. Gehiegi pentsatu gabe geure benetakotasun hori agertzea da gakoa, eta konplexurik gabe guk geurea defendatzea, naturaltasun guztiarekin. Hori baino gauza ederragorik ba al da? Inori errespetua faltatzeko beldurrik izan gabe jokatu behar dugu, pentsatzen eta sentitzen duguna adierazi. Hein batean geure esku dago; eta uste baino ahalmen gehiago dugu geure inguruan eragiteko, kontua nahi izatea eta norbere burua proban jarritz portaerak aldatzen hastea da. Gai honetan ere, badugu bai zer landua geure buruarekin!

Karmelo Ayestak⁵ bere lan bikainean dioen moduan, erabilera areagotzeko erantzukizuna guk geuk gartu behar dugu, zirkunstantzien biktima sentitzen den oro askatasunaren beldur da, aukera gisa ere ezin baitu ikusi askatasuna. Ez du hautatzeko ahalmenik; ondorioak, berriz, sufritu egiten ditu. Bizitzaren gaineko erantzukizuna onartzen duena, aldiz, libre sentitzen da nahi duena pentsatzeko eta egiteko. Badaki gertatzen denaren aurrean norberak aukera dezakeela jarrera eta erantzuna (Ayesta, 2014:15).

**Uste dut euskal
hiztunok geu
garena izanez
euskararen
erabilera-
esparruak
irabaztea lor
dezakegula.
Gehiegi pentsatu
gabe geure
benetakotasun
hori agertzea da
gakoa, eta
konplexurik gabe
guk geurea
defendatzea,
naturaltasun
guztiarekin. Hori
baino gauza
ederragorik ba al
da?**

Bukatzeko, ez nuke nahi Amets Arzallusen gogoeta hau aipatu gabe utzi, esaten jardun garen hori poliki asko azaldu baitzuen: "...iruditzen zait 50 urteetan abertzaletasunak ez duela beti euskararen gaia seriozki hartu... euskaldunak izan nahi dugu frantsesez biziz, errazago zaigu anitzez; kontra egiteko prest gara suprefet harro bati, hezkuntza eredu frantses bati, hizkuntza politika jakobino bati, poliziari, intelektualen teoria chauvinistei, lege arrotzei, burokrazia administratibo amaigabeari, gure poltsiko hutsei, estatu bati, biri, kontra! Geure buruari izan ezik! Geure baitako karriketan ez dugu manifestatuko! Ministroekin hitz egitera eseriko gara, presidentearekin behar baldin bada, baina geure buruarekin ez dugu aurrez aurre jarri nahi. Ez gara hainbestearino apalduko! Alta, hizkuntzak ardazten duena izatea eta ene herria ardatza hautsirik daraman gurdi bat da. Okerrena da ez dudala beti nik konpontzeko borondate handirik ikusten bazterretan, batzuek diote hizkuntzaz ari naizelarik integrista bat naizela, talibana ere entzun izan dut. Ez nekien hemen koherente izateari talibana esaten zitzaionik..." (Amets Arzallus; Itsasu, 2013). ●

OHARRAK

1. Estres linguistikoa.

http://www.badubada.com/eu/erakusketa/bizikidetz_estres_linguistikoa.php

2. Euskal Herrian 100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira

<https://www.youtube.com/watch?v=r-t-gk789Tc>

3. Nork berean <http://31eskutik.com/2014/01/28/nork-berean/>

4. Bahamarren edukazio ona

<https://www.youtube.com/watch?v=6PwII0vnqhw>

5. Goza daiteke gehiago euskaldun baten hizkuntza bidaia. Karmelo Ayesta (2014).

BIBLIOGRAFIA

Ayesta, Karmelo (2014). *Goza daiteke gehiago euskaldun baten hizkuntza-bidaia*. Utriusque Vasconiae, Oroitzapenak bilduma.

EMUN (2010). *Zer egin...? Euskaraz egiterakoan egunero sortzen zaizkigun egoerei aurre egiteko lagungarriak*. <http://www.lantalan.com/balia-bideak-eta-tresnak/zer-egin-eskuliburua> (2015/01/20)

IRALE, 2013-2014 ikasturteko formazio proposamena. "ETM: esatetik egitera". Emun (euskara eta berrikuntza soziala).

Irastortza, Joxpi (2010). Lan-munduko euskara-planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak. Pentsamendua garatzetik helburuak lortzera.

Olaso, O. (2014). *Ikuspegi Soziologikoa eta gizarte psikologiarena*. HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroa. Mod. Zkia 1.4.

Sanginés, G., Suay, F., (2008). Hizkuntza mendekotasunezko portaeran

eragiteko proposamena: Ikuspegi psikologikoa. Societat Valenciana de Psicologia. *ERALAN ikerketa proiektua*. Soziolinguistika Klusterra. Sanginés, G. *ARGIA* astekarian eginiko elkarrizketa. 2013ko abenduaren 15a. Suay, Ferran., (2008) Norberaren hizkuntza-espazioari buruzko lantegia. Pertsona arteko erabileran valentzierari eusteko baliabideak. Valentiako CEFIRE. *ERALAN ikerketa proiektua*. Soziolinguistika Klusterra. Telp tailerrak, (2015/01/20). www.telptailerrak.com. Torrealдай, Joan Mari (1998). El Libro Negro del Euskera. Zarraga, A., Coyos, J.B., Hernández, Jone M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, Loren V., Uranga, B., Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Soziolinguistika Klusterra, Eusko Jaurlaritz (Kultura saila), Gasteiz. Zupiria, Xabier (2010). 08 Jarrerak. <http://www.ehu.es/xabier.zupiria/liburua/08JARRERAK/8jarrera.pdf> (2014-12-15)